

PROIEKTUA ETA CURRICULUMA

1. HELBURUAK, EDUKIAK ETA EBALUAZIOA

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Aztergai dugun animalari buruzko idatzizko eta ahozko azalpena prestatzea.
- Informazioa irakurtzea eta informazio espezifikoa hautatzea.
- Informazioa eskemen bidez adieraztea.
- Testua idazteko zenbait baliabide erabiltzea.
- Hizkuntza baliabide batzuk antzematea eta erabiltzea: aditzaren pertsona eta aldia, ordezkapen lexikala eta testu-antolatzaileak.
- IKTak eta baliabide digitalak eraginkortasunez erabiltzea, burutu behar dituzten jardueretan informazioa biltzeko eta hautatzeko eta ekoizpenen berri emateko.
- Idatzitakoa berrikustea eta zuzentzea.
- Koebaluazioan trebatzen hastea.
- Talde-lanean gogotsu aritzea.
- Euskaraz hitz egiteko interesa erakustea.

EDUKIAK

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Gaiarekin lotura duten ahozko testuen ulermena: informazioa, azalpenak, arauak eta esperientzien eta bizipenen kontakizuna.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak. Funtsezko informazioa eta funtsezkoa ez dena antzemateko prozedurak.
- Ahozko testuen edukiaren alderdi nagusien bereizketa eta horien ahozko adierazpena.
- Datu zehatzak antzemateko prozedura, era bateko edo besteko lanak egiteko.
- Talde-lanean sortzen diren komunikazio egoeretan parte hartzeko eta laguntza emateko jarrera.
- Informazioa emateko diren ahozko testuen sorkuntza: berdinen arteko eta lan-taldeko elkarrizketak, deskribapenak, gelako aurkezpenak eta kontzeptuen definizioa.
- Hainbat iturritan informazioa bilatzeko, edukiak aukeratzeko eta antolatzeko estrategiak, aurretik emandako gidoiak erabilia.
- Edukiak testuetan kokatzeko eta hizkuntza-baliabide egokiak erabiltzeko estrategiak.
- Argibideei jarraituta, norberaren testuak berrikusteko eta zuzentzeko prozedurak.
- Hizkuntzak ikasteko estrategien erabilera, ahozko diskurtsoak sortzeko.
- Laguntzazko eta errespetuzko jarrera, bai komunikazio-trukean, bai denen artean ikasterakoan.
- Ahotsa eta keinuak kontrolatzeko estrategiak.

Idatzizko komunikazioa

- Testuetan argitaratutako informazio garrantzitsua antzemateko estrategiak.
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak: aurretiko jakintzak aktibatu, hipotesiak egin eta egiaztatu, informazio garrantzitsua bereizi, testuari

laguntzen dioten irudiak interpretatu eta hitz ezezagunen esanahia ondorioztatu.

- Komunikazio-egoeraren ezaugarrien azterketa: nork, zertarako.
- Laguntza jasota, informazio zehatza bilatu eta hautatu.
- Hainbat euskarritako informazioa eta jakintzak integratzen eta alderatzen ikasteko estrategiak (datuak antzeman, sailkatu, konparatu eta interpretatu).
- Informazioa eskuratzeko, antolatzeko eta komunikatzeko testuen sorkuntza (laburpenak, eskemak, deskribapenak, azalpenak).
- Eredu batetik abiatutako testuak sortzeko estrategiak.
- Ereduetatik abiatutako testuak berridazteko estrategiak.
- Elementu grafikoen erabilera, testuak hobeto ulertzeko.
- Testuak prozesatzeko programa informatikoen erabilera.
- Testuaren ideien antolaketa eta eraketa: egitura eta paragrafoak.
- Laguntza jasota, testuko lokailu batzuk —batik bat, denborazkoak— antzemateko eta erabiltzeko estrategiak.
- Testu idatziak txukun aurkezteko ardura.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia ulertzeko eta erabiltzeko estrategiak.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden eskola-hiztegien erabilera.
- Bai norberak bai beste batzuek sortutako testuak taldean berrikusteko eta hobetzeko jarrera.

INGURUNEAREN EZAGUERA

- Animaliaaren bizimodua, elikadura eta ugalketa.
- Izaki bizidunak behatzeko eta aztertzeko interesa.
- Izaki bizidunak zuzen behatzea, tresna egokiak eta ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide teknologikoak erabiliz.
- Landare eta animaliak iraunarazteko eta zaintzeko jokabide aktiboa.

EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

HIZKUNTZA

Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarriketa aritzea

- Ea testuaren esanahi orokorraz jabetzen den.
- Ea testuaren ideia nagusiak antzematen dituen.
- Ea kontzeptu-mapa eta eskema sinpleak osatzen dituen testuko ideia nagusiak baliatuta.
- Ea ulermen-arazoak argitzen dituen estrategia sinpleak erabilita.
- Ea argi adierazten dituen gaiarekin lotutako ideiak, bizipenak eta jakintzak.
- Ea emandako jarraibideak erabiltzen dituen sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
- Ea ahozko testu errazak eta laburrak (deskribapenak, azalpenak) sortzen eta azaltzen dituen argi adierazita, behar bezala antolatuta eta ikusizko euskarriak erabilita.
- Ea talde-lanean sortzen diren harreman-egoeretan parte hartzen duen, naturaltasunez eta egokitasunez hitz eginez, hartu-emanaren oinarritzko arauak betez eta gainerako pertsonei begirunea erakutsiz.
- Ea moldatzen den komunikazio-egoeraren oinarritzko alderdietara: helburura, solaskidera eta gaira.
- Ea behar bezain ongi intonatzen eta ahoskatzen duen.
- Ea ahotsa eta keinuak kontrolatzen dituen, bere adinari dagokion neurrian.

Idatzizko testuak

- Ea eskemen edo oharren bidez testuaren edukia planifikatzen duen, komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta sortu beharreko testuaren egitura aintzat hartuta.
- Ea informazioa paragrafoetan antolatzen duen.
- Ea oinarritzko zenbait kohesio-prozedura erabiltzen duen testuko ideiak eta zatiak lotzeko.

- Ea egoki islatzen dituen aurrez zehaztutako helburuak.
- Ea egoerari dagozkion lexikoa eta erregistroa erabiltzen dituen.
- Ea testua argi eta txukun aurkezten duen.
- Ea sortze- eta berrikuste-lanetan laguntzen duen.
- Ea informazioa bilatzen duen bere mailara egokitutako euskarriez baliatuz.
- Ea egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
- Ea erabiltzen dituen eskola-hiztegiak, kontsultarako emandako materiala eta baliabide teknologiko sinpleak, zalantzak argitzeko eta informazioa bilatzeko eta antolatzeke.
- Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen.
- Ea bere aurrerapenen balorazio xumeak egiten dituen eta hobeto ikasteko lagungarri dituen estrategien adibideak jartzen dituen.
- Ea ezagutzen eta zuzentzen dituen normalean egiten dituen akatsetako zenbait.
- Ea onartzen duen akatsak egitea ikas-prozesuaren parte dela.

INGURUNEAREN EZAGUERA

- Ea sailkatzen dituen izaki bizidunak irizpide zientifiko sinpleei jarraituz; adibidez, elikadura eta ugalketa mota eta morfologia.
- Ea agertzen duen landareak eta animaliak zaintzeko eta kontserbatzeko jokabide aktiboa.

EBALUAZIO-TRESNAK

- Informazioa erabiltzeko eta aplikatzeko fitxak:
 - Hutsuneak betetzeko testuak
 - Kontzeptu-mapak
- Txantiloiak: prozedurak-eta berrestekoak eta azalpenaren ebaluazio-txantiloiak
- Ume txikien aurrean egingo duten azalpena bera

2. LANDUKO DIREN OINARRIZKO GAITASUNAK

- *Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna*
- *Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako gaitasuna*
- *Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna*
- *Ikasten ikasteko gaitasuna*
- *Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna*